

«ALKARTEA, GURE ALDARTEA
CAMINO DE ESPERANZA »

2025EKO APIRILAREN 6A



«ALKARTEA, GURE ALDARTEA
CAMINO DE ESPERANZA »

6 DE ABRIL DE 2025

**GARIZUMAKO
5. DOMEKA (C)**

**DOMINGO 5 DE
CUARESMA (C)**

Liturgia lagungarriak

Atarikoak:

- Gogoratu ezinbestekoa dala lagungarriok alkarte bakotxaren gorabeheretara moldatzea luzera eta hizkerari dagokienez.
- Ondo legoke Caritaseko boluntarioek gaurko ospakizunetan eraginkortasunez parte hartzea.
- Egun egokia da gaurkoa, eukaristia liturgia beren-beregi zaintzeko: ogi eta ardaoaren aurkezpena eta altararen behealdean itziko dan kolektarena. Holan egiten bada, diru-batzearen arrazoiak azaltzeko oharra irakurri arte ez gara dirua batzen hasiko. Eukaristia otoitza nabarmendu gorespenak kantatuz, ogia era esanguratsuan zatitu "Jaungoikoaren Bildotsa" abesten dan bitartean, jaunartzea...

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- Recordemos la necesidad de que estos subsidios se adapten en su extensión y lenguaje a las circunstancias de cada comunidad.
- Estaría bien que el voluntariado de Cáritas participara activamente en las celebraciones de hoy.
- Hoy es un día apropiado para cuidar especialmente la liturgia eucarística: la presentación del pan y el vino y también de la colecta, que se deja a los pies del altar. Si se hace así quizá convendría no empezar a hacerla hasta que se haya leído pausadamente la monición que la motiva. Destacar la plegaria eucarística con las aclamaciones cantadas, la fracción del pan significativamente hecha mientras se canta "Cordero de Dios", la comunión...

HASIERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Garizuma aldiko bosgarren domekan gagoz eta bihotz-barritzeko bidearen azken txanpari ekin deusagu. Gaur be barri ona jasoko dogu: Jaunak ez dau gizatasuna kentzen deuskun pekatua zuzitzen; baina bere parkamena emoten deusku, Jaungoikoaren seme eta alaba lez dagokigun bizia barrero sortu daiten gugan.

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Hemos llegado al quinto domingo de Cuaresma, y entramos en la recta final de este tiempo de conversión. Hoy también recibiremos una buena noticia: El Señor no justifica el pecado que nos deshumaniza, pero nos da su perdón, para que en nosotros pueda volver a renacer la vida propia de los hijos e hijas de Dios.

CARITASEN KANPAINA

Caritasek bere eguna ospatzen dau gaur. Kontua ez da sekulako ekintzak egitea, eguneroko keinu txikiak baino, gure hartu-emon pertsonaletan zein munduagazko harremanean zaintzaren aldeko aukera agertuz. Alkartean eragina daben aukerak. Gure ingurura begiratu, laneko eremuetara, auzoetara, herrietara eta oinazetan dagozan pertsoez "jabetu", ezagutu, nahiz eta gure inguru hurbilekoak ez izan. Errukitu, euren sufrimentua ulertu, hunkitu eta enpatia sentitu. Atsekabearen aurrean axolagabe bizitzea ez da bidezko aukera, ez da bidezkoa inor bizitzaren bazterrean iztea.

Abestuz ekingo deusagu ospakizunari.

SARRERAKO KANTUA

ABADEAREN AGURRA

Bihotz-barritzera deitzen gaituan Jauna, izan bedi zuekin.

DAMU OTOITZA

Bihotz-barritzearen eta parkamenaren bidez heriotzatik Jainkoaren bizitzara deitzen gaitu Jesus Jaunak.

- Oinazetan dagoenaz errukitzen zaran Anaia: Erruki, Jauna.
- Guri bizia emonez aintzaz betetzen zaran Jaungoikoaren Semea: Kristo, erruki.
- Heriotzatik askatzen gaituzun Berbizkunde eta Bizia: Erruki, Jauna.

OHARRA LEHENENGO IRAKURGAIAIRI (IS 43, 16-21)

Israel herria Babilonian erbesteraturik dagoala entzungo dogu lehenengo irakurgaietan. Profetak urteen buruan ahuldutako itxaropena biztu gura eban, eta askapena hurbil dala iragarten deutse atzerriratuei.

CAMPAÑA DE CÁRITAS

Hoy es Jornada de Cáritas. No se trata de realizar grandes acciones, sino de pequeños gestos cotidianos que reflejan nuestra opción por el cuidado, tanto en nuestras relaciones personales como en nuestra relación con el mundo. Opciones que tienen impacto en la comunidad. Mirar a nuestro entorno, nuestros espacios de trabajo, barrios, pueblos y "darnos cuenta" de las personas que sufren, reconocerlas, aunque no sean de nuestro círculo más cercano. Tener compasión, comprender su sufrimiento, conmovirse y sentir empatía. No es una opción posible vivir indiferentes ante el dolor, no podemos dejar que nadie quede a un costado de la vida.

Iniciemos la celebración unidos en el canto.

CANTO DE ENTRADA

SALUDO DEL PRESIDENTE

El Señor, que nos llama a la conversión, esté con vosotros.

ACTO PENITENCIAL

El Señor Jesús, a través de la conversión y el perdón, nos llama a pasar de la muerte a la vida de Dios. Con sencillez y humildad, pidamos perdón por nuestros pecados. (*Instantes de silencio*)

- Tú, nuestro Hermano que te compadeces del sufriente: Señor, ten piedad.
- Tú, Hijo de Dios que eres glorificado dándonos vida: Cristo, ten piedad.
- Tú, Resurrección y Vida que nos rescatas de la muerte: Señor, ten piedad

MONICIÓN A LA PRIMERA LECTURA (IS 43, 16-21)

En la primera lectura vamos a escuchar que el pueblo de Israel está desterrado en Babilonia. El profeta quiere suscitar la esperanza, debilitada por el paso de los años, y anuncia a los exiliados la próxima liberación.

OHARRA BIGARREN IRAKURGAIARI (FLP 3, 8-14)

Bigarren irakurgaian, Paulo apostoluak bere aurreko bizitza aztertzen dau eta, Kristo ezagutu izanagaz alderatuz, zabortzat jotzen dau. Aurrerantz begiratzen dau bakarrik eta helmugan jartzen ditu begiak.

JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Aurkeztu deioguzan Jaungoiko Aitari gure munduaren beharrak eta eten barik isuri daizala gure gainera bere parkamena eta bizia emoten deuskun Espiritua.

- Gotzainaren alde. On Josebaren gotzaingintzaren urteurrenean, Espirituaren indarrak itxaropenaren zeinu izan daitela danei abegi eginez eta adore emonez. Eskatu deiogun Jaunari.
- Kristaugaien alde. Jesus berbiztuaren graziaz bete daitezala datorren Pazkoan Kristinau Sarbideko sakramentuak hartzeko prestatzen ari diran kristaugai guztiak. Eskatu deiogun Jaunari.
- Caritasen alde. Jubileuaren deia geure egiten lagundu deigun eta bide egin daigun itxaropena eroanez gure inguruetara, jenteari aukerak emonez eta jentearengana itxaropena eroanez. Eskatu deiogun Jaunari.
- Gu guztion alde. Teknologien erabilerak ez daizala buruz buruko hartu-emonak ezereztu, erabilera horrek pertsonen duintasuna errespetatu daiala eta gure sasoiko krisiari aurre egiteko baliotsu izan daitela. Eskatu deiogun Jaunari.

Aita, bizi-emoilea, begiratu errukiz gure erreguak eta, zure Espirituaren bitartez, barritu eta aldatu gure bizitzak. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

MONICIÓN A LA SEGUNDA LECTURA (FLP 3, 8-14)

En la segunda lectura, el apóstol Pablo examina su vida anterior y la considera basura en comparación del conocimiento de Cristo. Mira solamente hacia delante y fija sus ojos en la meta.

ORACIÓN UNIVERSAL

Presentemos a nuestro Padre Dios las necesidades de nuestro mundo y pidamos que siga derramando sobre nosotros su perdón y su Espíritu de vida.

- En el aniversario de su ordenación episcopal, para que nuestro obispo Joseba, con la fuerza del Espíritu, sea signo de esperanza, acogiendo y animando. Roguemos al Señor.
- Para que a los catecúmenos que en el mundo entero se preparan para recibir los sacramentos de la iniciación cristiana en la próxima Pascua, la gracia de Jesús resucitado los llene durante toda su vida. Roguemos al Señor.
- Para que Caritas nos anime a acoger la invitación al Jubileo que nos llama a andar por caminos y sendas concretas en la historia siendo personas trabajadoras de esperanza en medio de este mundo y en los lugares en los que se nos pide ser pequeñas luminarias, farolillos, mostrándonos capaces de generar alternativas y signos creíbles de esperanza. Roguemos al Señor.
- Para que el uso que hacemos de las nuevas tecnologías no reemplace nuestras relaciones humanas, respete la dignidad de las personas, y ayude a afrontar las crisis de nuestro tiempo. Roguemos al Señor.

Padre y autor de la vida, mira compasivo a quienes hoy vivimos en sombras de muerte y, por la acción de tu Espíritu, renueva y transforma nuestras vidas. Por Jesucristo, nuestro Señor.

OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Gaur batu daiten dirua eleizbarrutiko Caritasen esku itziko dogu. Sustatzea, sentiberatasuna biztea eta Jesusen barri onaren lekukotasuna emotea da, bere lana agertzeaz batera, Caritasen kanpainen helburua. Eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzeagaitik.

JAUNARTZEKO ISILTASUNEAN

Jesusek ohikoa dau mendira otoitz egitera joatea, otoitza da-eta bere hitzen edo egiteen euskarria, zentzuna... Tirabira handiaren erdia egiten deutse galdera Jesusi. Erantzun zehatza eskatzen dauan jentetzak inguratzen dau Jesus. "Eta zuk, zer dinozu?". Baina Jesusek ez dau bat-batean erantzuten, entzun egiten dau, gogoeta egin eta zerbait idazten dau lurtean; azkenik, patxadaz emoten deutse bere gogoetaren barri.

"Pekaturik ez dauanak bota daiala lehenengo harria". Jesusek ez deutse aurka egiten epaia eskatzen deutesnei, ez ditu euren arrazoiak ezeztatzen, ez dau liskarrik eragiten. Jesusek astia hartu eta bere erantzunagaz ingurukoak gogoetara daroazo, erabakia hartzen laguntzen deutse: "banan-banan, alde egin eben isilean".

ABADEAREN AGURRA

Izan daigun, aste honetan, behar gaituanari eskua luzatzen deutsan bihotz errukitsua. Zoaze Jaunaren bakean!

MOTIVACIÓN A LA COLECTA

La colecta que ahora realizamos se destina a Cáritas diocesana. Las campañas de Cáritas buscan animar, sensibilizar y dar testimonio de la buena noticia de Jesús en la comunidad cristiana, así como mostrar la labor que realiza. Gracias por vuestra solidaridad.

EN EL SILENCIO DE LA COMUNIÓN

Jesús, como en muchas ocasiones, se retira al monte a orar, ya que, sin el soporte previo de la oración, sus palabras o sus acciones no tienen sentido. Jesús es interpelado en medio de una situación de gran tensión. Está rodeado de una multitud que reclama una respuesta concreta, "tú, ¿qué dices?". Pero Jesús no responde de manera inmediata, escucha, dedica un tiempo a reflexionar, escribe algo en el suelo y, finalmente, comunica de manera tranquila el fruto de su reflexión.

"El que esté libre de pecado, que tire la primera piedra". Jesús no se enfrenta con quienes le exigen una sentencia, no rebate sus argumentos, no provoca una disputa. Jesús se toma su tiempo y con su respuesta, provoca la reflexión en quienes les rodean, les ayuda a tomar una decisión, "se fueron escabullendo uno a uno".

DESPEDIDA DEL PRESIDENTE

Manifestemos, durante esta semana, un corazón misericordioso que tiende su mano a quien nos necesita. Podéis ir en paz.